


# Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko urriaren 1a IV.urtea

Usurbil, 74. Zenbakia



**San Praixkuak  
indarrez datoz**

## Txerrimunik ordainetan



**Aitona Praxku eta Estherri** zorionak! Irailaren 23an eta 28an bete zituzten urteak. Nahiz eta berandu izan ondo pasa. Etxekoak.



**Garazi eta Andoni Muguruza.** Urriaren 4an eta 5ean 3 eta 31 urte egiten dituzuzenez zorionak familiakoen partez



Urteaskoan **Iñigo Ibargoien.** Hilabete beranduago bada ere zorionak Iñati eta aita-amen partez.



Urriaren 7an urteak betetzen dituen Benita **Etxeberriari** zorionik beroenak eta muxu asko. Zerbait prestatu e... azalduko gara eta! Etxekoak

Norbait zoriondu nahi baduzu hemen duzu aukera. Lortu argazkiak eta ekarri Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara nahi duzun testuarekin.

**Datorren alea: Urriaren 15ean**  
**Datuak eta argazkia emateko epea: urriaren 8a**

## Jaiotzak

**Uxue Magariño Garnateo**  
(1999-09-21)  
Eguzkitzaldea

**Julen Alzas Hernandez**  
(1999-09-21)  
Santuenea

## Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarrege ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Olardo kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi gelfokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarte 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- **Noaua!** aldizkaria 36 03 21



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herrira!

## EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

### ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40*	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40*	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

\* Orioraino bakarrik

\*\* Aiaraino joaten da

\* Oriotik irtetzen da

\*\* Aiatik irtetzen da

### ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz
07.30	07.55	08.15
08.30	08.55	09.15
09.30	09.55	10.15
10.30	10.55	11.15
11.30	11.55	12.15
12.30	12.55	13.15
13.30	13.55	14.15
14.30	14.55	15.15
15.30	15.55	16.15
16.30	16.55	17.15
17.30	17.55	18.15
18.30	18.55	18.15
19.30	19.55	19.15
20.30	20.55	20.15
21.30	21.55	21.15
22.30	22.55	22.15

Zarautz	Usurbil	Donostia
06.45	07.05	07.30
07.45	08.05	08.30
08.45	09.05	09.30
09.45	10.05	10.30
10.45	11.05	11.30
11.45	12.05	12.30
12.45	13.05	13.30
13.45	14.05	14.30
14.45	15.05	15.30
15.45	16.05	16.30
16.45	17.05	17.30
17.45	18.05	18.30
18.45	19.05	19.30
19.45	20.05	20.30
20.45	21.05	21.30
21.45	22.05	22.30

# Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaual Kultur Elkarte  
Bordaberi 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaual@topagunea.jalgi.com  
Web orria:  
http://www.jalgi.com/topagunea/noaual/

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**

Saioa Erro

**Kolaboratzaileak**

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Kar-mele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain, Jone Aliri, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Azpiroz, Jokin Zubiaur eta Arantxa Irazustabarrena.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

**Eredakzio Kontseilua:**

Olatz Altuna, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta, Saioa Erro eta Inaxio Usarralde.

**Maketazioa eta diseinua**

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaual hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

Noaual Kultur Elkarteke jendaurreko udarako ordutegia: 11.00-13.00 astegunetan

**Azala:**

Aginagako San Praixku jaietan izan zen sokatira txapelketa



## Endika Abril errebote finala


Mikel Bengoetxea

**D**atorren igandean, urriaren 3an, Zubietako plazan eta goizeko hamaitan hasita, "Endika Abril" errebote txapelketaren finala jokatu da. XXXVI. edizio honetan Ustaritzeko "Kapito Harri" taldeak, Baionaren aurka neurtuko ditu indarrak. Pronostikoa ez da batere garbia, biak ere talde haundiak baitira errebote munduan. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, seguruenik final ikusgarriaz gozatzeko aukera izango dugu.

Aurtengo edizioa inoiz baino lehenago hasi zen, abuztuaren 22an hain zuzen ere. Azken urteetako esperientzia txarra kontutan hartuta eguraldi onak aprobeztatu nahi izan dira aurtun. Horregatik aurtengo edizioa inoiz baino azkarrago bukatuko da, okerrik ez bada-go behintzat.

Baionarrek eta Ustaritzkoek finalean egoteko aukera garbiak zituztela hasieratik aurreikusten zen. Nahiz eta finalerdietan etxeko taldeak (Zubietarrek) eta Hazparrendarrak finalista biei aurre egiten saiatu, ez zuten beren helburua lortu. Baionak 13-7 irabazi zion Zubietari, eta Kapito Harri 13-5eko emaitzaz nagusitu zitzaion Hazparneri Billabonako plazan jokatuako partiduetan.

Orotara zortzi taldek parte hartu dute txapelketa honetan, eta guztira zazpi igandetan jokatu dira partiduetan Zubietari eta Billabonako plazetan. Beraz, Noaual zale eta pelotazale guztiak, datorren igandean goizeko 11.00etan jokatu den finalera ager zaitezten animatu nahi zaituztet lerro hauen bidez.

**LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA**

/ Goizez irekita 10.00etatik 13.00 arte

Beste egunetan, egunero irekita 16.00etatik 19.30 arte.

Asteazkenetan goizez irekita 10.00etatik 13.00 arte

○ ITXITA

**Urria**

Astl.	Astr.	Astz.	Ostg.	Ostr.	Lar.	Iga.
				1	/	○
4	5	6	7	8	○	○
○	○	13	14	15	/	○
18	19	20	21	22	○	○
25	26	27	28	29	/	○

1999



## Euskaraz..., non ez?

**O**stiral arratsaldea da eta gidatzen dudan kotxeari argi gorria piztu zaionez, Euskal Herrian Campsak duen gasolindegira inguratuz, "bete ezak!", esan diot bertako langileari.

Agindua txukun betetzen hasiko orduko, horra hor non entzuten dudan ahots leunez osatutako esaldi hau: "Adi egon, superra botatzen ari zara", eta bukatu ondoren: "Eskerrik asko, bidai on".

Ordaindu ondoren, nolatan zegoen euskaraz galdetu nion langileari. Jaso nuen erantzuna jatorra izan zen: "makinak euskaraz behar genituela esan genitxion nagusiari, eta berak

*euskaraz jarri dizkik*". Bejondeizuela esanez agurtu nuen langilea eta ez da gutxiagorako.

Askotan bete izan diot "sabela" kotxeari, behin baino gehiagotan gasolindegian berean, baina aurrekoan entzundakoaz hausnarketa txiki bat egin ondoren, berehala oharatu naiz euskara zabaldu beharrraren garrantziaz. Izan ere, ustekabean harrapatu ninduen esaldiak eta ni bezalaxe, atzerriko, erbesteko edo bertako edonork entzungo du esaldia.

Gertatutakoaren berri lagunartera zabaldu nuenean, gasolindegia desberdinetan izan baziren ere, horrelakorik

inon etzutela topatu esan zidaten. Guztiek albiste "berriari" oneritzia eman ondoren, langileek makinak euskaraz jartzea lortu bazute, bezerook eskabide berdina egin behar genuela zioen norbaitek.

Albistetxo bat besterik ez da izan nirea, baina euskeraren alde egiterakoan, euskaldunok eguneroko bizitzan zenbat aukera "galtzen" ditugu?

Asko dugu egiteko, eta Europako hizkuntzarik zaharretarikoa, bere Euskal Herrian nagusi izatea ea lortzen dugun.

Orkatz

## Udalak Noaua!ri ohar gutuna

**U**dal hauteskundeak pasa ondoren, Alkatearen hautaketa egitea izan ohi da hurrengo pausoa; beste herrietan bezalaxe, Usurbilen ere, uztaillaren 3an egin zen hautaketa hau udal hautetsi berrien bozketaren bidez; aurreko hiru legealdietan bezala, oraingo honetan ere, Joxe Antonio Altuna izan zen hautatua beste legealdi edota, datozen beste lau urte-etarako.

Udal honek ez du ulertu eta ulertzen Noaua! aldizkariko korresponsalik nolatan ez zen agertu udal-ekitaldi hain garrantzitsu honetara; are

gutxiago, oraindik, uztaillaren 16ko alean ekitaldi honi tartarik ez eskainia.

Udal berritze eta Alkatehautaketak ez dira eguneroko gertakizunak, aldikakoak baizik; lau urtetik lau urtera ematen den pauso garrantzitsu eta gertakizun historikoa izan ohi da udal hauteskundearena; eta herriak une historiko hori bereiz bizitzen du gertakizun horretan partaide zuzena izan delako bozketaren bidez; horregatik, Noaua! aldizkariak arreta haundiagoarekin jokatu behar luke gisa honetako gertakarietan aparteko ardura eta saiamera ipiniz.

Hortaz, Noaua!k bere lana bete ez duelako, eta usurbildarrok gisa honetako informazioa izateko edo jasotzeko eskubidetan gaudelako, Udala ezinbesteko ohar-gutun hau idatzi beharrean aurkitu da.

EHko zinegotzi taldea

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezinez sinatu daitezkeen arrez *Noaua!k* beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak *Noaua!ra* bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.

## Telesforo Ardoak



Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25  
Telf. 36 12 20

# MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

UDAZKEN HONETAN ZURE MODA BERRIA


Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

## P A T R I

J A T E T X E A


Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



## Patxi Maioz Aizpurua

**Aginagako Mapil baserri zaharrean jaiobazen ere, granja egin ondoren bide bestaldean dagoen baserrira joan zen bizitzera. 12 urterekin hasi zen angulak harrapatzen, eta 60 urterekin tarteka oraindik ibiltzen da Oria ibaian zehar.**



### Goiz hasi al zinen angulak harrapatzen?

12 urterekin hasi ginen anguletan eta hondarretan. Oriora joaten ginen eta 4000 bat kilo hondar ekartzen genituen ala bakoitzean obretarako. Bi lagun joaten ginen normalean anguletara, bat baiarekin eta bestea eskuzko makinilarekin. Baiarekin, orduan, kaladak egiten genituen. Horrela, kalada bakoitzean kaia hustutzen genuen.

### Angulak harrapatzeko orduan, lehen eta orain estilo berdina erabiltzen al da?

Estiloa ia berdina da, baina orain ur bazterrean lotzen da ala, izan ere orain erabiltzen duten baia txikia baita, eta guk garai batean 1,20 metroko baia erabiltzen genuen, oso handia, eta ibaiaren erdian geratzen ginen. Orain motorrekin alde batetik bestera ibiltzen gara. Baia ere eskuarekin botatzen genuen, orain berriz, lan guztia makinarekin egiten da..

### Angula asko egoten al zen garai hartan?

Lehen angula asko egoten zen oraingoarekin konparatuz. Lehen ere egun onak eta txarrak izaten ziren.

### Gau batean zenbat angula harrapatzen zenituzten gutxi gora behera?

Gau on bat tokatu ezker 15-16 kilo inguru harrapatzen genituen, 20 kilora ere iristen zen batzutan. **Julian Pikabea** da inguru honetan gau batean gehien harrapatutakoa, gau batean 60 kilo inguru bildu zituen. Lehen ez genuen motorrik erabiltzen; angula ibaira sartzen zen bertan egoteko. Azaldu bezain pronto denok

baiara joaten ginen. Orain erditik ibiltzen garen, ba...dana harrapatzen dugu eta ez da askorik gelditzen. Orain 3 kiloinguru jasotzen du bakoitzak asko jota. Orain gainera lehia handia dago, 60 bat biltzen gara gau batean eta denak elkarri lapurtzen ibiltzen gara askotan.

### Orain, granja da zure ogibidea, ezta?

Oilanda hazten dugu. Txitoa ekarri eta oiloa egin. Oikinarekin ibiltzen gara lanean. Oilo hauen arrautzak inkubadoretan sartzen dituzte, txitoa egin eta txito horiek oilaskotako izaten dira, haragia saltzeko.

### Zenbat oilo dituzue granjan?

20.000 bat oilo ditugu gaur egun. 1000 kilo pentsu jaten dutenez, makinarekin ibiltzen gara. Eskuz banatzen hasi ginen, baina makinak beti ere denbora asko errezten du. Hasieran, txerriarekin hasi ginen lanean, baina ez zitzaigun batera ondo joan, izan ere, pentsuak gora egiten zuen eta txerriak behera.

### San Praixkuak ere ate joka datoz.

San Praixkuak gazteentzako izaten dira, zaharrek segituan erretiratzen gara etxe aldera. Festak asko aldatu dira orduetik hona, lehen lau eta erdiak aldera hasten zen festa eta bederatzietarako denak etxera. Lehen txandaturaz antolatzen ziren festak; urte batean Pikabearenean, beste batean Ehizan eta hurrengoan Etxebesten.

### Kontxako bandera ere irabazia omen duzu?

1960 urtean irabazi genuen Kontxako bandera.

**Agurtzane Solaberrieta**

## BERANTZ AKADEMIA

Lehen hezkuntza

Heziketa zikloak

Euskara

D.B.H.

Ingelesa

San Esteban kalea 14, USURBIL

Kontabilitatea



**Apunta zaitez!!**

☎ 943 37 32 95

# TXOKOALDE

## Berrikuntzak Erroizpe Elkarte

Eukene Kamino



**A**buztuko atsedenaldiritxoaren ondoren hementxe gaituzue berriro ere.

Udara honetan ezingo dugu behintzat eguraldiaz kexatu, bestela iraila hasieran gure auzoko erreka begiratzea besterik ez genuen. Niri pena eta guzti ematen zidan agortuta ikusteak, errekatxo honek dakarren uraren hotsa ere ahaztua genuen.

Saltxipi jatetxean ere haurrentzat parke polit bat egin dute, partikularra noski, horrela gurasoak bazkaltzen edo afaltzen ari diren bitartean haurrek inongo arriskurik gabe parkean ibiltzeko aukera ederra dute.

"Erroizpe Elkarte" orain emakumeok ere bertako bazki-

de izateko aukera badugu, hori bai, lehendabizi lehen bazkide den familikoren batek bere lekua hutsik utzi beharko du bertan bazkide berriak sartu ahal izateko. Oraingoz aukera honetaz gozatzen duen emakume bakarra dago.

Gauza berri gehiago ere badu elkarte honek. Ontziak garbitzeko makina jarri dute, eta izozkiak, bai jauna, izozkiak jarri dituzte gure auzoko elkarte honetan, hau bai

bete betean asmatutako gauza izan dela! Burua altxatu eta hau guztia ikusiko balute zer esango ote lukete gure aitonek, lehengo bazkide zaharrek? Garaian garaikoak, noski, eta guretzat hobea bada denok gustora.



# KALEBERRI

## 100 biztanle eta 10 baserri

Arantza Irazustabarrena



**U**surbil: 5.000 biztanle baino gehiago dituen herria da, taberna eta denda ugariekin.

Guk hau badakigun arren, harrigarria dela uste dut Donostia eta inguruko herri edo hirietako zenbait jendek ez jakitea.

Izan ere, aurreko batean Donostiako lagun batekin aurkitu nintzen eta zera esan zidan: Usurbila ez zela inoiz etorri (Donostiatik 10 kilometrotara dagoela esan beharra ere!). Bere ustez Usurbil 100 biztanle eta 10 baserri dituen herri txiki bat da, hau da

interesik ez duen herria. Neska honen antzera pentsatzen duen jende asko dago, Usurbilen girorik ez dagoela pentsatzen duen asko, Usurbil herri "xoxoa" dela uste dutenak, jakingo balute...



Esan nahi dudana zera da, penagarria iruditzen zaidala gipuzkoatar, bizkaitar ...askok Usurbil bezalako herri bat ez ezagutzen.

Hortxe aritzen gara txiki txikitatik munduaren ez dakit zein puntatoko tokien izenak ikasten eta gero gure inguruko txokoak ezezagunak zaizkigu. Hemen hutsune nabaria dago. Beraz, Usurbil ezagutu nahi duenak gerturatu dadila eta hemen girorik ez dela falta ikusiko du.

# KALEZAR

## Semaforoak Kalejarren? Holakorik

Andoni Udabe



Uda bukatzen ari bada ere, oraindik eguraldi onak egiten dituela aprobeztatuz, jende ugari dabil Kalezarko kaleetan barrena asteburuetan. Izan ere, gure auzoa txirridulari, motorzale, nahiz korrikalari edota ibiltarien pasara etengabekoa bihurtu da.

Batzuk bizikletaz Igeldo aldetik etortzen dira, beste batzuk Aginaga aldetik, Arratzaindik, izango da Lasarte aldetik datorrenik ere. Beste batzuentzat Arratzaindik barrena oinez bueltaxka bat emateko pasabidea izan ohi da, eta Zubietako buelta korrika egiten duenik ere bada (orain gehiagoraino gainera, Behobiako laisterketa gerturatzen doan heinean

asko izango dira maratoilari on horien parera iritsi nahiko dutenak!).

Gainera, Urteta inguruan edo Arratzain-Berriko harrobi zaharrean "pinitoak" egitera joan ohi den motorzaleren bat ere ez da falta, zarata atereaz. Denak atzera-aurrera!

Batzuk bakarrik, besteak taldeka, nabarmena da noiz pasatzen diren; izango ezta ba? Ditxosozko erregistroko tapa zahar horien txapa hotsa ez entzuteko moduan! Konponduko ote dituzte! (badakizue "baza" sartu behar, ea behingoz ondo jartzen dituzten).

Astebukaeran Kalezartik

pasako bazarete kontuz ibili, trafiko itzela dabil eta, dagoneko semaforoa ere badarabilkigu buruan bueltaka.



# ATXEGALDE

## Etxe honetan, eta honetan, eta honetan...

Zaloa Arnaiz




Iraila dagoeneko joan zaigu eta urtero bezala, garai honetan makina bat iragarki ikusten dira kaleetan, tabernetan zein unibertsitateetako iragarki tabloietan pisuen alokairuen berri emanez.

Behar den bezalako pisua erosteko aukerak geroz eta zailagoak dira edonorentzat. Ikasleak zein langile gazteak, alokairuan bizitzera behartuak gaude. Urtero, irailetik aurrera, iragarki xume hauen kopurua gehitzen doa, askorentzat eromena bihurtzen delarik horrenbesteko aukera desberdinak ikusita.

"Pisu bat alokatuko nuke auzo honetan", "Merkea eta atsegina den pisu bat nahiko nuke ingurune honetan", ...

Horrelako iragarkiak irakurtzen ohi-tuak gaude baina bada auzoan zehar bitxia iruditzen zaidan bat: **"Pisu bat erosi nahi nuke etxe honetan (ez naiz agentzia)"**



Iragarki hau hainbat portaletan ikusgai dago eta dirudienez horietan guztietan pisu bana erosi nahi du. Dirua soberran izango ote duen bat ote?

# SANTUENEA

## Festa gosea

Agurtzane Solaberrieta



**U**da pasa berri dugu, eta honekin batera festen laisterketa ere amaitzear dago. San Praixkuek eman izan diote amaiera beti San Juanetan hasten den laisterketa honi, baina aurten santueneatarrok, ustekabez izan bada ere, azken txanpa honetan parte hartu nahi izan dugu. Ustekabez diot, azken momentu arte ez baitugu inork festa hauen berri izan. Iraileko hutsunea bete nahian, eta azken urte hauetan egin den legez, egun bakarreko festa antolatu du Ibai Ondo Elkarteak. Aurten inor ez zen animatzen urteroko festak antolatzerara, eta

horregatik elkarteko kideek honen ardura hartu zuten.

Egun bakarreko festa izan bazen ere adin guztietako jendeak bazuen non ondo pasa. Auzoko txikienak Hankagorri taldeak aurkeztutako



Mukikrosaz gozatzeko aukera izan zuten goizean. Ibai Ondo Elkartearen inguruan ere hainbat gauza antolatu zituzten, Toka Txapelketa, Mus Txapelketa, trikitilariak, eta beste zenbait ekitaldi. Hau guztia euskal giro dotore batez lagunduta. Ikusgarriena eskubaloi zelaian antolatu zen futbol txapelketa zezenekin izan zen. Egun honi amaiera emateko txaranga bat ibili zen auzoko kaleetan zehar giroa animatuz.

Aurtengoa egina dago, baina nork asetuko du datorren urteko festa gosea?

# URDAIAGA

## Begiak neguari begira

Alazne Begiristain



**O**raindik udako eguraldia dugu, negua iristeko denbora falta da baina hala ere, behin sanestebanak pasa ondoren neguari begira jartzeko ohitura dugu hemen ingurukook. Gero denbora azkar pasatzen omen da! Ez naiz

harritzen honela pentsatuta!

Idaztea tokatzen zaidan bakoitzean berdina esaten dut baina oraingoan ere, beti bezala jarraituz ondokoa dio-tsuet: hemen, goialdean, ez da berririk nik dakidala behintzat baina asko eskertuko nuke


gure auzoko berri duen norbait, kexaren bat duen norbait, istoriotxoren bat kontatu nahi duen norbait niregana gerturatzea.

Azken hilabete honetan parkearen inguruko informazioa izan da jaso ahal izan dudana. Egunero izan dut par-

kera igotzeko aukera eta bere garaian pentsatu ez banuen ere jendea mugitzen da parke koxkor honetara.

Normala den bezala astean zehar ez da jende gehiegirik mugitu, baina asteburua izanez gero eta gainera eguraldi eguzkitsuarekin beti bazen norbait goizean mahaiak okupatzen eta ilunabarrean kontu-kontari famili giro epelean. Egia esan, herritarrak baino gehiago kanpoko jendea da hemen gora igotzen dena.

Hala ere, oporrak bukatu dira, haurrak eskolan hasi dira eta piskana-piskana bisita hauek murrizten joango dira.





# AGINAGA

## Sakabanatutakoak 27

Manuel Begiristain



**S**akabanatutakoak da Aginagako kalerik luzeenaren izena, bestela galdetu lberdrolakoei; enpresa honek bidaltzen dizkigun gutunak (fakturak) izen honekin iristen baitzaizkigu, alboan zenbaki bat dutela.

Istoria 3 urtetik hona dator. Itxura denez, Usurbilgo udalak Aginagarako kale izendegi bat sortu zuen eraikitzen hasi ziren etxe berriak helbide bat behar zutelara kontutan edukiz.

Horrela, "Erriberako", "Elutx" eta "Estrata" kaleak izendatu zituen udalak kaxkoan kokatzen ziren etxeentzat eta bakoitzari zenbaki bat jarri ere.

Hiru kale horietatik kanpo gelditu ziren auzoko etxe eta baserri gehienak (78); udalak "sakabanatutakoak" izenburupean etxe eta baserri bakoitza bere izena eta zenbaki berriekin osatutako zerrenda luzatu zigun auzotar guztiei.

Baina hona hemen gure sorpresa! Itxura denez TELEFONICA eta IBERDROLA-koek ez dute euskera oso ondo menderatzen eta horren ondorioz "sakabanatutakoak" kalearen izena dela ulertzen dute eta etxearen izena. Honek zenbakia ezarri eta gutunak bidaltzen dizkigute.

Gure herrietan eta Aginagan bereziki baserriaren izenagatik ezagunak gara bertakoak; onartezina izango litzateke hauen erabilera galtzea. Eskatu dezagun gutun bakoitzean etxearen edo baserriaren izena bakarrik agertzea.



# ZUBIETA

## Udaldiko oporraldiak eta gero

Karmele Urdanpilleta



**H**ego haize epelak, margo aldaketak, uzten oparotasuna hotzetik berorako txorien pasea eta ilunabar urreztatuak. Eta biharamona ez da jadanik opor egun.

Udaldiko oporraldiak luze eta beteak (denetarako astia izaten dutelako) pasa ondoren, zertxobait haziago, pixka bat gozoago eta orohar helduago hasi zaizkigu gure haurrak, gaztetxoak eta gazteak eskolara joan etorrian. Etxean gelditzearen tentaldi pentsamenduak zenbat gazteren burutik ez ote da pasa! Eta eskolara joan ordez harako hura egingo banu? Eta ziur egon denak ez

direla gaizki dabilzanetakoak, ez. Hainbeste gai, hainbeste informazio eta hain era desberdinetakoak, eguna joan eta eguna etorri. Aspertuta! Hainbeste saiatu beharrari ederrik aurkitu gabe. Inork motibatzen ote ditu behar hainbat gustagarri izateraino?

Gizakiongan esperientzia guztiak informatzeko diren heinean deformatzaile ere izan omen ditezke; arima txokoan arrastoa utziz. Edertasuna denez arimaren janari (denen gaintik bilatzen duena) eta arimaren heziketan eta gustoen formakuntza garaian aurkitzen direla esanda azaltzen ote

dugu behar-beharrezko dutela janari hau, Egiaren ditzira den edertasun hau. Ez da nahikoa espirtu-intelektuari irakastea, arima hezi behar ez ote. Eta arimaren heziketa honetan datza: Batetik, zeren beldur izan eta zer gorrotatu irakastea eta bestetik zer desiratu eta zer maitatu, hau guztia, oinarriei leialak izanik.

Espirituak egia bilatzen du gauza guztietan, arimak edertasuna eta gorputzak ongia, ongi izatea. Espiritu eta gorputzaren artean erdikide den arima hezitzea da bien arteko lotura bilatzea.

## Senideaken mozioa onartu du udalak

**H**erriko ordezkariak **Senideakek aurkeztutako mozioa onartu zuten pasa den irailaren 28ko plenoan. Bertan, besteak beste, euskal presoak estatu espainiarreko espetxeetatik Euskal Herriko kartzelara lehen bait lehen ekartzeko tramiteak martxan jartzea eskatzen da.**

Ez da honelako mozioa onartzen den lehen aldia. Pasa den abenduan aurkeztutako mozio bati babes munizipala eman zitzaion, udaletxe aurrean ere konzentrazioa egin zen abenduan, eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskakizunak etengabeak izan dira.

Hilabeteak pasa ahala, ordea, espetxeetako bizi baldintzak okerrera doaz, Herrera de la Manchán adibidez. Bertan da **Xabier Aranburu** aginagarrak, eta pasa den apirilaren 22tik "Xomorro" eta beste 18

euskal preso politiko kartzela barruan dispertsatuak eta isolatuak izan dira. Batzuk eguneroko bizitza egiteko egokituak eta erabiliak ez diren moduloetan sartu dituzte, enfermeria, ingresos, destinos edo aislamentuko moduloak kasu, zenbait kasutan bizi baldintza penagarriak eta guztizko zigor errejimena jasanez. Guzti hau espetxean enkartelada bakeetsuak egiteagatik edo beraien eskubideak errespetatu daitezzen eta Euskal Herriratuak izateko istantziak betetzeagatik.

Honengatik udaleko plenoak zera erabaki zuen:

1- Herriko bizilagun guztien ganako iraintzat jotzea dagozkie eta euskal gizarteak bere egiten dituen (udala barne) eskubideen betetzea exijitzeagatik zenbait preso zigortzea.

2- Herrera de la Manchako espetxeko zuzendaritzari bere-

hala bertako euskal presoek ezarritako zigor arbitrarioaren ezabatzea eskatzea.

3- Madrilgo gobernari euskal gizartearen aho bateko borondatea errespetatzeko deia egitea, horrela, bere administraziopean aurkitzen diren euskal presoak Euskal Herriko espetxeetara lehen bait lehen ekarriak izan daitezzen beharrezkoak diren tramiteak martxan jartzea.

4- Dagokion instantzia ofizialetan beharrezkoak diren gestioak burutzea lehen onartutakoaren betetzea ziurtatzeko. Honetarako, alkatea buru izango duen delegazio munizipal bat Herrera de la Manchako espetxeraino joango da, korporazioak hartutako akordioaren berri zuzenean espeziko zuzendaritari emateko.

5- Bizilagunei akordioaren berri ematea.

## Ziklomotoreak matrikulatzeko aukera

Ziklomotoreak matrikulatuta ikusiko ditugu datorren urtea baino lehen. Izan ere, araudi orokorra indarrean sartu da, eta honenbestez ziklomotoeen jabeek nahitaez matrikulatu behar dituzte. Bestela, trafikoko agenteek zigortu ahal izango dituzte 2.000 urteko urtarilaren 28tik aurrera.

Matrikulazioa udalaren bitartez egin daiteke ja. Horretarako, urriaren 31a baino lehen, honako agiri

hauek aurkeztu behar dituzte: nortasun agiriaren fotokopia, ziklomotoearen ezaugarrien ziurtagiria (jatorrizkoa), ziklomotoearen lizentziaren fotokopia eta 2.575 pezeta matrikulazio tasa ordaintzeko.

Behin epe hau bukatu ezke-ro Donostiako Karlos I kaleko 7-9 zenbakian dagoen Gipuzkoako Trafiko Buruzagitzara jo beharko dute ziklomotoea matrikulatu gabe duten guztiak.



# ORBELDI


MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

**ESTRELLA**  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Zubiaurua, 10

Tf. 943 37 18 07 - Fax: 943 37 83 41



# TXIRIBOGA

## TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

Pinturas  
lon

943 83 09 37 ☎ 670 397504

# Udalaren lehentasunak legealdi honetan

**U**ztailean udalbatza berria osatu ondoren, udalak datozen urteetan lehentasuna izango duten proiektuak eta lanak finkatu ditu. Datozen lau urtetan inbertsio garrantzitsuenak, hasieran behintzat, Paris etxe atzeko parkea egitera eta beste zenbait proiektutara bideratuko dira.

Paris etxe atzeko parkea egitea da legealdi honetako lehentasunetako bat. Proiektua egina dago dagoeneko, baina lanak nork egingo dituen konkurtsora atera aurretik arazo garrantzitsu bat gainditu beharko da: lurren erosketa. **Joxe Antonio Altuna** alkatearen esanetan urte bukaerarako lanak hasita egon beharko lukete.

Bestalde, beste zenbait proiekturi ere lehentasuna eman nahi die udalak: Kale Nagusia 10eko urbanizazioa berrikuntzaren beharrea



dago, udalak eta bertako komitateak erdi bana ordainduko dute proiektua. Udarregiko kultur etxearen proiektua ere laister aterako da lehiaketara. Azkenik, Aginagako frontoi berria ere martxan jarri nahi dutenez, proiektua konkurtsora ateratzea da udalaren helburua, hori bai, lurjabeekin adostasunerara iritsi eta gero.

Beste zenbait proiektu zuzenean enkargatuak izateko prest daude: Eguzkitzaldeko eta Kale Nagusi osoko urbanizazioa berritzeko proiektuak. Azken honetan urbanizazioaren berritzea aurrera eraman bitartean, abiadura mantxotzeko oztopoak jartzeko proiektua egiteko erabakia hartu du udalak.

## Txokoaldeko frontoia

**A**urreko alean Txokoaldeko frontoiko argiak pizteko kaxa puskatu eta ordulari lanak egiten zituen automata lapurtu zutela azaltzen zen. Kirol Patronatuaren arabera ez zen lapurretarik izan. Udalak argiak gaueko 22.00etan itzaltzeko erabakia hartu bazuen ere, norbait kaxa ireki eta gau osoan piztuta egoten ziren. Horregatik automata kentzeko erabakia hartu zuen udalak.

## Udalaren lur erosketak

**U**dalak zenbait lursail erosi ditu Kalezarren. Alde batetik Potxoneko etxea eta beste hiru lur zati, plaza berri bat egiteko Portale atzeko lurrak eta beste zenbait lur. Beste aldetik, Etxealdian bide eta zerbitzuak zabaltzeko eskatzen diren lur batzuk ere erosi dira. Lursail hauek markesarenak ziren, baina hemendik aurrera udalak nahi duena egiteko erabili ahal izango ditu.

## Proposamen berria

**E**roskiko hipermerkatua egitearen truke, Lasarteko Atso-bakar auzoaren ondoan dauden lurrak Usurbilgo udalaren esku gelditu dira. Kirol ekipamendurako erabili behar dira lur hauek, eta Lasarteko alkatesak proposamen bat egin dio udalari: inbertsioan parte hartuz, lur horietan golf eskola bat jartzea da Lasarteko udalaren nahia. Orain Usurbilgo udalak izangodu azken hitza.




## Urtinea Elkarte

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55



## Ekaitz

**Bideo eta ARGAZKIak**

Usurbil

tlf 943 36 14 87

oiartzun

## Unibertsitatea eta kanpoan ikasi beharra

**D**agoeneko amaitu dira denok hain maiteak ditugun "udako oporrak". Batzuentzat aspaldi bukatu baziren ere, unibertsitarioenak izan dira, ohi bezala, opor luzeenak. Baina hauei bukatu zaizkie igande

arratsaldetako "txantxak", hemendik aurrera astelehenak astelehen izango dira denontzat.

Berriz hasiko dira hara eta hona bueltaka, batzuk Gasteiza, Bilbora besteak, urrunago beste batzuk...

### Aroa Alkorta eta Idoia Udabe aurten hasiko dira unibertsitatean

**T**emati azaltzen dira hauek biak "unibertsitatea" deritzon mamuaren aurrean, "nobatoa" izatearen beldurrarekin. UBla urte gogorra izan da, eta lehenengo egunetik jasandako presioa latza izan da. Lehenengo selektibitatea deritzon mamuari aurre egin behar eta orain unibertsitatearen muntroa gainditu behar.

Honi guztiari beste gauza bat gehitu behar: Bilbora doaz biak, amatxoren bazkari goxoetatik, beste norbaiten postre gozoetatik eta "Irratikoko" dardo saioetatik urrun.

Idoia orain arte Donostiako La Salle ikastetxean aritu da. Orain, Leioako unibertsitateara doa "Odontologia" ikastera. Betidanik izan du Idoiak osasun arloko ikasketaren bat burutzeko ideia, baina azken momentu arte ez du erabaki "Odontologia" egitea.

Astean zehar Bilbon egongo da, Deustoko "Colegio Mayor" ikasle-egoitzan. Hau dela eta Idoia "nobataden" beldur da. Unibertsitatea mamu nahikoa ez bazen egoitzako txantxak jasan behar! "Lehengusuek kontatu dizkidate "nobatada" batzuk, eta ziur ni "urteko nobata" izendatzen nautela, ai



*ama....Baina ni lasai-lasai joango naiz, "txula" antzera joaten banaiz urte guztian egin beharko omen ditut, nahiago bi astetan egin eta pakea"*

Aroak, berriz, Lasarteko Batxiler institutuan egin ditu azken urte hauek eta orain Leioako unibertsitateara doa "Biologia" ikasketak burutzeko asmoz. Txikitatik datorkio bokazioa eta, beraz, aukeraketa ez da zaila izan. Baina aukeraketa egokia izan ote da? Dudak eta beldurrak ez dira falta.

Astea Basaurin pasako du Aroak, lehengusu baten etxe-

*an. "Nire lehengusuek ere Biologia ikasi zuen. Orain ezkondu egin da eta haurdun dago. Ondoko moldatuko naizela uste dut".*

Biak beldurrarekin ekingo diote beren bizitzako etapa berri honi. Alde batetik ikasketetan aurki ditzazketen zailtasunak daude, beste batetik jende berria,

giro berria...oso txikiak sentitzen dira edifizio haundi horien parean. Beren ustez, **Aroa Alkorta eta Idoia Udabe** izateari utzi eta multzo haundi baten zati izatera pasako dira.

Baina dena ez da hain beltza. Orain temati dagoenaren ahotik ari dira baina badakite esperientzia positiboa izango dela. Lagunekin denbora gutxiago pasako duten arren, ziur orain kontu gehiago izango dituztela elkarri esateko, bateko eta besteko kontuekin beteko dituzte ostiral gauak.

Faltan botako dituzte kuadrilakoak, txirristako harrian eserita arratsalde lasaiak, aizparekin haserretzea, aitarien patata-tortila, lagun bereziagoak...baina eraberean ilusioz eta gogoz hasi nahi dute "unibertsitario" bizitza. Zorte on eta kontatuko diguzue!

**Badakite etxetik kanpo ikastetxaren esperientzia positiboa izango dela**

# S 99 an Praxkuak

Noaur! hamabostekaria



**EIZA**  
**DENDA**

*Festak  
ondo igaro!*

Aginaga ☎ 943 36 12 06

**ARRATE**  
ZAHAR EGOITZA  
**TABERNA-JATETXEA**

*Ondo pasa San Praxkuak!*

Aginaga

Tlf. 36 63 40

viveros  
**Aranburu**

Loreak- Landareak-  
Lore Sortak- Koroak-  
Loragintza

*Ondo pasa  
festak!*

Villa Aingeru  
☎ 943 36 64 60  
Aginaga



# Urtean zehar egindako lana erakutsiz

**A**zken urteetako San Praixkuetako programan beti izaten dute Arrate Zahar Egoitzakoek bere txokoa. Aginagako adinekoek urtean zehar egindako eskulana Apaiz etxean egoten dira ikusgai. Aurten, urriaren 2tik 4a bitartean egongo da zabalik erakusketa hau.

Aginagako adinekoak ez dira geldirik egoten diren horietakoak. Bata ez bada bestea, beti dute zereginen bat. Azken urteetan, urtean zehar Arrate zahar egoitzak antolatuta zenbait ikastarotan parte hartzen dute, eta arrakasta handia dute gainera.

Ez dira hasi berriak, dagoeneko ondo menderatuko dituzte batzuk pintura, gantxilo, makramea eta bolilozko enkajea. Izan ere, zenbait urtetan eskulan hauek lantzen aritu dira Arrate Zahar Egoitzako goiko gelan. Duela zortzi urte inguru hasi ziren pintura ikastaroekin, eta beste eskulanekin berriz, hirugarren urtea dute aurtengoan.

Beraien esanetan ikastaro hauek lagunekin kafetxo bat hartzen aukera ematen die, eta eskulanak eginez gainera. "Etxean bakarrik egon beharrean hobe ikastaroetan partehartzeari, primeran pasatzen dugu".

Ikastaro hauek Arrate zahar Egoitzako bazkideei zuzenduta daude, baina hori bai, tokia baldin badago nahi duen guztia ager daiteke bertara, nahiz eta bazkideek lehentasuna izan.

Bazkide edo ez bazkide mundu guztiak ikusi ahal izango ditu Aginagako adinekoek egindako lanak. Urtero urtero San Praixkuetan eskulanen erakusketa antolatzen dute, eta bertan agertzen dute urtean zehar egindako lana. Hauek ikusi nahi dituenak urriaren 1etik 4a bitartean Apaiz etxera agertu beste lanik ez du. Han egongo dira trebezia eta maitasun osoz egindako aginagatar hauen lanak.



## TABERNA-JATETXEA



### ANTXETA


Mus txapelketa azkarra

Larunbata 2

Inskripzio ordua; 4etatik 4:30etara

EGUZKITZA, 4  
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44



Ondo pasa  
San Praixkuak!

Aginaga  
☎ 36 27 73

## SEKAÑA

BEREZITASUNAK  
Txerrikumea,  
Txuleta eta Arraia

Eguneko bazkariak  
**ETXEBESTE  
JATETXEA**

Ondo ibili  
Aginagako festetan!

Aginaga ☎ 943 36 27 40

# SAN PRAIXKU ZORIONTSUAK GUZTIOI



**TXAPARTEGI HARATEGIA**

Ondo pasa  
San Praixkuak!

Aginaga ☎ 943 36 19 07

# Sokatira eta arrauna Aginagan

**S**an Praixkuak gerturatzeko hasi orduko aginagarrak sokatirarako prestatzen hasten dira. Korrika hara eta hona, kamioiari soka lotu eta tiraka, guztiek itxura hona eman nahi izaten dute auzoko jaietan egiten den sokatira txapelketan. Aurten ere ez da ikamikarik faltako, nahiz eta gero tiratzaile gehienek elkarrekin bapo afaltzen dute sokatirako lehia ahaztuta.

Goitarrak, Aginaga Kirol Elkarteak, Euskal Herria Askatu, Pakito Boys eta Gaztiak taldeak aritu ziren pasa den urteko txapelketan. Aginagarrak dira gehienak, nahiz eta tartean izaten diren Usurbildik ekarritakoak ere. Inork galdu nahi ez, eta komeriak izaten dira elkarren kontra tiraldia egiten dutenean. Jueza ere ez da erraz libratzen ikamika honetatik.

Aurten, sokatira txapelketa honen hirugarren ekitaldia izango da. Aginaga Kirol Elkarteko mutilek irabazi zituzten aurreko biak, baina bietan Euskal Herria Askatu taldearekin izandako lehia ikusgarria izan zen. Urriaren 3an jokatu den txapel-




ketan, ordea, azken bi urteetako martxa aldatu nahiko dute gainontzeko taldeek.

San Praixkuetan sokatiran aritzeko kontua ez da gaur goizekoa, lehen ere izaten zen horrelakorik. Behin baino gehiagotan izaten ziren Goitarren eta Behetarren arteko tiraldiak, zaharrak gazteen aurkakoak... Eta ez sokatiran bakarrik, garai batean auzoko jaietan arraunetan ere elkarren kontra aritzen ziren aginagarrak. Izan ere, gaur egun Aginagan arraunlari

asko ez badago ere, garai batean traineru estropadetan puntaren puntan ibiltzeko gai izan ziren.

Nola ahaztu 1957an eta 1960an irabazitako Kontxako banderak? Han daude Aginaga Kirol Elkartean. Oriotarrek osatutako trainerua zela esaten zuten, baina Patxi Mayozen argi utzi zigun. "1960an irabazi genuen banderako estropadetan zortzi aginagarrak ginen. Zuek atera kontuak!"



**ATXEGA**  
ARRAIN ETA MARISKOAK

*San Praixku jai zoriontsuak aginagar guztioi!*

Mutiozabal etxea, 17 Aginaga Tlf.: 943 36 10 81

**A. BRUÑO E HIJOS S.L.**



**Mariskada berezia bi pertsonentzat**

Angulak - Langostak - Mixerak - Nekorak  
Langostinoak - Txangurroa - Zentoiloa  
Almejak - Txangurro desmigatua - ...

Menu ezberdinetako aurrekontuak egiten ditugu

*Egin ezazu zure eskaera telefonoz!*

☎ 943 37 27 88 Usurbil  
☎ 943 36 11 26 Aginaga

**Ondo pasa San Praixkuak!**



*Angulas Mayozen, s.l.*

Aginagako angulak  
Angula-haztegi propioak

**Ondo pasa San Praixkuak!**

Toki-berri, z/g Aginaga  
Tlf.: 943 36 15 94

**Ondo pasa San Praixkuak!**

## Urriak 2 larunbata

*Oilasko biltzaileen eguna*

Goizeko 6.00etan **gosaria kroasan eta txokolategiaren**

6.30etan **oilasko biltzaileen irteera**, trikitilariekin batera

Eguerdiko 14.00ak aldera **oilasko biltzaileen itzulera** herriko plazara.

Arratsaldean ondo merezitako **siesta**

Atsedenaldiaren ondoren **buruhandiak** baina pixkorak...

Gaueko 11.00etan dantzaldia **IZOTZ** taldearekin

Atsedenaldiran **JEXUXMAI ETA NOIZBEHINKA**

## Urriak 3 igandea

Goizeko 9.00etan **tiro platoa** probintzia mailan

11.30etan **pala eta eskuzko pelota finalak**

Eguerdiko 13.00etan XVII. **toka txapelketa**

Arratsaldeko 17.00etan **sokatira txapelketa (640 kilotan)**

Gaueko 21.00etan **bertsolariak** zine aretoan:

- Jon Maia
- Maddalen Lujanbio
- Andoni Egaña
- Jexux Mari Irazu

Gai-jartzailea: **J.M. Izeta**

Ondoren **KRISTINA** eta **AMAIA** trikitilariak

## Urriak 4 astelehena

*"San Praixku" Zaharren eguna*

Goizeko 11.00etan **meza nagusia** bertsolariekin batera

Ondoren **zaharren hamaiketakoa** Aginaga sagardotegian. Bertan bertsolariak ere izango dira.

Arratsaldeko 17.00etan **euskal jokoak**: lokotxak, korrika, zaku-lasterketa, txingak...

Ondoren **sardina eta sagardo banaketa**. Aurten hain famatuak diren **Agiñako piperrak** dastatzeko aukera paregabea

## Urriak 8 ostirala

*"Umeen eguna"*

Goizeko 9.00etan **umeen jolasak**

Eguerdiko 14.00etan **umeentzako bazkaria**

Arratsaldeko 17.00etan **Takolo, Pirritx eta Porrotx**

Ondoren **txokolate banaketa**.

Gaueko 23.00etan **dantzaldia AKE-LARRE** taldearekin.

Atsedenaldiran maleta-lasterketa

## Urriak 10 larunbata

*"Preso eta errefuxiatuen eguna"*

Arratsaldeko 16.30etan **XIX. mus txapelketa**

Aldi berean **torfila txapelketa**

Gaueko 20.30etan **herri afaria**

Gaueko 12.00etan dantzaldia **ETZAKIT** taldearekin.

Goizaldeko ordu batean: **herriko preso eta errefuxiatuei omenaldia**

Ondoren **ETZAKIT** taldearekin amaiera emango zaie aurtengo jaiak

**SAN PRAIXKU JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU AGINAGAR GUZTIOI!**



**JUAN MANTEROLA  
E HIJOS**

**Galardi etxea  
AGINAGA**

**Telf.: 943 36 11 16  
36 20 52  
Faxa: 943 37 02 63**



## Arkaitz Rezolak bi urte daramatza Iruñean

**N**ekazari Injenieritza teknikoa ikasten du Iruñean. Bi urte daramatza pisu batean, Oretako mutil bat eta Donostiako bi neskekin. Oso ondo konponzen omen dira guztiak, denak euskaldunak dira eta asko eskertzen omen da klaseak erdaraz izan ondoren etxera joan eta "familia" euskalduna topatzea, astelehenetik ostiralera familia.

Iruñeak, hiri handi batek dituen eskeintza anitzak ditu, beti badago zerbait ikusteko edo egiteko. Baina Usurbilgo herri txikiak duen xarma falta zaio, Usurbilen beti bilatzen duzu norbait kontu kontari ibiltzeko, aurpegi guztiak ezagunak zaizkizu.

Amaren bazkari goxoak eta mimoak faltan botatzen omen dira, baina pisukideak ere hor daude, beti laguntzeko prest.

Etxekoandre iaioa bihurtu omen da Harkaitz bi urte hauetan; *"Zuri egitea tokatzen zaizun arte ez zara konturatzen etxean zenbat gauza dagoen egiteko"*.

Elikadura zaintzen dute eta denetik jaten saiatzen dira. *"Hala ere, entsalada bazkaltzeko eta amonaren kroketak afaltzeko ez dira falta izaten"*.

Haserreak? Ez omen dituzte liskar asko izaten, zaborra nork jeitsi edo telebistan zer ikusi eztabaidatzen dute, besterik gabe. Gainontzeko "etxekolanak" ondo banatuta dituzte, "eta hala hobe".

Asteburutako harrera ona izaten da normalean, anaiare-



kin borrokaren bat edo beste, amaren bazkari goxoak eta zeharo eraberrituta berriz ere "asteari adarretatik eusteko".

Beraz, esperientzia positiboa izan da ikastera kanpora joatea, jende asko ezagutzeaz gain, independentzia deritzon hori ere ezagutzen da. Esperientzia ona eta denontzat gomendagarria.

## Iñigo Garcia de Eulatek hiru urte egin zituen Meridan



**D**uela bi urte amaitu zuten Topografiako karriera Meridan, Extremaduran. Pisu batean bizi zen. lasarte bat, Murtziako bat eta galiziar bat zituen pisukide.

Garai haien inguruan oso oroitzapen ona du, lagunekin izan zuen harremana benetan ona izan zelako. Etxetik 800 km-tara zegoen eta gabonetan, udan eta Aste Santuan etortzen zen Usurbila. Urteko

gainontzeko egunetan pisukideak ziren bere familia. Elkarbizitzak gauza asko erakusten omen ditu, lagunekin beti dago parranda eta txantxa giroa. Pisuari, berriz, momentu onak eta txarrak konpartitu behar dira, norbait gaisotzen dela? Mimoak egin behar.

Euskaldun asko zegoen Meridan eta hori asko eskertzen zuen Iñigok, euskaraz hitz egiteko aukera ematen baitzion. Giro ezin hobea omen zegoen eta noizean behin, euskaldun guztiak bildu eta izugarrizko "babarrun janak" egiten zituzten. Sagardoa, txakolina eta mus partidak ere ez ziren falta. Euskaldun ez zirenak ere elkartzen ziren "Euskal jai" haietara inolako arazorik gabe.

Usurbila bueltatzea pozgarria bazen ere, ez omen zen gau-

za erraza izan berriz hona moldatzea. Alde batetik lagunak zeuden, bere kontu eta istorioekin. Hainbeste denbora kanpoan pasa ondoren ez zen erraza berriz kuadrilaren martxara moldatzea.

Beste alde batetik familia zegoen, momentuero amari nora zioan, zeinekin zioan, noiz bueltatuko zen...esan beharra. Bera independente izatera eta inongo azalpenik eman gabe hara eta hona ibiltzera ohituta zegoen.

Etapaz zeharo positiboa izan omen zen eta lanera kanpora joateko arazorik ez lukeela izango dio. "Aberatsa dela beste leku batzu, jende berria, kultura ezberdinak, pentsakera ezberdinak...ezagutzea.

**Amagoia Mujika**

# Pepe Rei Ardi beltza proiektua aurkeztuz

**P**epe Rey kazetariak "Ardi beltza" aldizkariaren proiektua aurkeztu zuen pasa den irailaren 20an Udarregi zaharrea eman zuen hitzaldian. Hilabetekari honetan ikerkuntza arloa landu nahi dute, garai batean Egin egunkarian ikerkuntza sailak ateratzen zituen artikuluen antzekoak argitaratu nahi baitituzte.

Dagoeneko lanean ari da Ardi beltza aldizkaria aurrera aterako duen lan taldea. Izan ere urtarrilean kaleratu nahi dute lehenengo alea, nahiz eta Durangoko azokarako liburu bat ateratzeko asmoa duten. Bertan ikerkuntza arloa jorratuko dute sail desberdinetan banatuta. Politika, komunikabideak, justizia, ekonomia, gizartea, nekazaritza ... guztira 17 ataletan banatuko dute hilabetekaria.



Aldizkari hau ordea, ez da kalean salduko, harpidetzaren bidez lortu ahal izango da. Kanpaina maiatzaren 18an hasi zuten eta dagoeneko 5000-6000 harpide dituzte. Hala ere lehenengo hilabetekaria kaleratu baino lehen 10.000 harpidetara iritsi nahi

dute eta proiektua herriz herri zabaltzen ari dira momentu honetan.

12.000 pezetaren truke, 120 orrialdeko 12 aldizkari eta lau liburu jasoko dute harpide egiten diren guztiek. Usurbilen Aitzaga tabernan izango dira txartelak.

# Eguraldi txarra Santueneako jaian

**A**zkenean jai eguna izan zuten Santueneak. Jaiak inork antolatzen ez zituela ikusita Ibai Ondo elkartek korrika eta presaka egun baterako egitaraua prestatu zuen eta irailaren 25ean festa giroa nagusi izan zen bertan. Eguraldiak ordea, ez zuen lagundu. Goizeko Hankagorri taldearen Mukikrosa ikuskizunean ateri izan bazen ere, arratsaldean ez zen berdina gertatu. Azkenean eurik bereak eta bi egin ditu aurten ere Santueneako jaietan.



**TABERNA**  
**"GYRE PRESOAK**  
**HERRIAN BEHAR DITVGY"**

Iraza kalea, 12  
 Tlf: 943 36 02 17



**Igandetan ganba-ziri mundialak!**

### Aialdeneako sagardoa onena

Aialdeneako sagardoa izan zen onena pasa den irailaren 18an egin zen sagardogileen arteko V. lehiaketan. **Arratzain, Berritza barrena, Gorosti, Olano eta Aialdeneako sagardoak** izan ziren dastagai Aitzaga Elkartean egin zen afarian, eta afari kideek sagardorik onena Aialdeneako sagardoa zela erabaki zuten. Makaiorekin aurrena eta kostilarekin gero sagardo guztiak edan zituzten, hori bai sagardo bakoitza nongoa zen jakin gabe.



**Z**elai Haundi baserriko Juan Altunaren behiek sariak irabazten jarraitzen dute. Pasa den abuztuaren 24an Elgoibarren San Bartolome jaien barruan izan zen Gipuzkoako limousin lehiaketan sari bat baino gehiago lortu zituen usurbildarrak. 12 eta 18 hilabete, 24 eta 36 hilabete, 36 eta 48 hilabete bitarteko behiekin lehen sariak eskuratu zituen. 24 eta 36 hilabete bitarteko behietan, berriz, aberekin saria Zelai Haundi baserrikoarentzat izan zen.

### Euskal festa Zubietan

Pasa den irailaren 19an euskal festa izan zen Zubietan. Goizean goizetik hasita jai giroa nagusitu zen bertako plazan. Barazki eta ganadu erakusketaz gain errebote eta pelota partiduak ikusiteko aukera izan zen. Eguraldi ederrak lagunduta herri bazkaria egin eta arratsaldeko egitaraua ere oparoa izan zen. Dema zaleek urteroko zita izan zuten Alamandegia aurrean eta jaiari amaiera emateko ez zen erromeri girorik falta izan iraileko hirugarren igandean.



**E**steban Nietoren heriotza salatzen Udarregi ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsokoek ordubeteko geldialdia egin zuten pasa den irailaren 28an. Ikasle Abertzaleak eta Jarraik deitutako irakaskuntzarako greba deialdiari erantzunez, 14.30etatik 15.30etara kalera irten ziren ikasleak. Denbora horretan udaletxe haurren konzentratuta egon ziren zenbait pankarta eskuan hartuta, eta ondoren berriz ere ikastolarako bidea hartu zuten.



**A**skatasuna eta sozialismoaren alde: ekin lempapean Gudari eguna ospatu zen Usurbilen pasa den irailaren 27an. Udaletxe aurrean hasi zen ekitaldia hil berria den **Esteban Nieto** preso ohia gogoratuz egindako minutu bateko isilunearekin. Txalapartariak jo ondoren, aureskua dantzatu eta **Joxe Mari Sagardiaren** omenez lore sorta jarri zuten udaletxe aurrean. Berdina egin zuten **Nazkaz** hil zen tokian eta **Arrantzalaren** omenezko oroitarrian.

## LIZARDI LIBURUDENDA

Eskolarako materiala

Maila guztietako  
testu liburuak

K/ Etxebeste, 1 USURBIL  
Tel.: 36 11 15 (Gipuzkoa)

## TXURRUT edaritegia



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1  
Tel:943 36 00 80

## ALBORTA

HARATEGIA

Behoko kalea, 4  
Atxegalde ☎ 943 36 57 42

## Eskola kirola: kirol aukera zabala

**E**skola kirola ikastetxeen bidez eskola-orduz kanpo antolatzen den kirola da. Usurbilen ere, Udarregi ikastolak aukera zabala eskeintzen die bere ikasleei. Zortzi urterekin hasi eta 16 urte bitartean kirol desberdinak lantzeko aukera dute: konpetitiboak batzuk eta kirola ezagutzea beste helbururik ez duten kirolak besteak.

Zortzi urterekin hasten dira haurrak eskola kirola lantzen. Adin horretan haurrak mugimendua behar du, jolasteko irrikaz dabil, eta gauza berriak ikasteko gogoarekin sentitzen da. Horretarako, adin hauetara zuzenki bideratutako oinarriko soin hezkuntza lantzen da. Hain ezagunak diren kirolez gain (futbola, eskubaloia, saskibaloia...), beste batzuk lantzen dituzte: euskal pelotaren modalitate desberdinak, herri kirolak, igeriketa, atletis-

98-99 IKASTURTEAN ESKOLA KIROLEAN IKASLEEN PARTEHARTZEA											
KURTSOA	LH1	LH2	LH3	LH4	LH5	LH6	DBH1	DBH2	DBH3	DBH4	GUZTIRA
IKASLE KOP.	36	29	23	34	31	31	28	39	41	37	329
ESKOLA KIR.	25 %69	11 %38	12 %52	23 %67	25 %81	29 %93	26 %93	35 %90	19 %46	21 %57	226 %69

moa. laz adibidez 27 ikaslek parte hartu zuten jarduera honetan.

Lehen hezkuntzako 5. mailan hasi eta DBHko 4. maila bitartean kirol aukera zabala da. Adin hauetan lehiaketa kirolak edo sustapen ihardueran ikasteko kirolen artean aukera dezakete Udarregiko ikasleek. Eskubaloia, futbola, pelota, gimnasia erritmikoa, saskibaloia, igeriketa, judo eta txirindularitza bezalako kiroletan beste ikastetxeetako haurrekin lehiatzen dira Udarregiko ikasleak. Bestalde krossa, ibilaldi neurtua, mendia ezagutu, igeriketa, boleibola eta urpeko

ekintzak lantzeko aukera badute sustapen jardueren barruan.

Eskaintza zabala da, baina gero ikasleek aukeratzen dute landu nahi duten kirola. Aurten gainera berrikuntzak daude. Herriko talde desberdinekin hitzarmenak egin dituzte, eta Zubietako Pelota Elkartearekin eta dantza taldearekin egin den hitzarmenaren yoko garbi eta errebotea eta euskal dantzak landu ahal izango dituzte Udarregiko haurrek.

**Haritz Zubiaur** kirol dinamizatzailer berriaren esanetan ikasleei aukera zabala eskaintzea garrantzitsua da. "13 urtetik aurrera eskubaloian, futbolearen edo saskibaloian jokatzen ez badute ikasleek kirola egiteari uzten diote. Horregatik DBHko ikasleei aukera zabala eskeintzea da gure helburua". Horretarako, aurten asko zabaldu da aukeren zerrenda: euskal dantzak, mendizaletasuna, yoko garbi eta errebotea, orientazioa, eskalada hasitapena, dantza artistikoa, aerobika eta beste zenbait kirol.

Josu Aranberri



**JUANTXO**  
Burdindegia



Kale Nagusia, 10  
Usurbil

37 00 08

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



**J. Orbegozo**



Bizkarra 1, 1.esk.

37 29 37 - 36 59 26

**ZENDOIA-ENEA**

**TABERNA**

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaietakoak,  
eguneroko menuak eta  
bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60

## Dominak Judo Elkartearentzat

**J**udoko txapelketen denboraldia hasi da Valladolideko "San Mateo" txapelketarekin. Euskadi, Galizia, Asturias, Cantabria, Andaluzia, Valentzia, Katalunia, Madrid, Castilla Leon eta Errioxako klub desberdinetako 250 judoka inguruk parte hartu zuten bertan.

Usurbilgo Judo Taldeak lau domina lortu zituen txapelketa honetan: gizonezkoetan **Ibai Peñak** (-60 Kg.) zilarra lortu zuen eta brontzea **Andres Herzog** (-73 Kg.) eta **Iker Lizarribak** (-100 Kg.). Emakumezkoetan **Aiora Arrozpidek** (-57 Kg.) brontzezko domina bereganatu zuen.

Bestalde, sanbon Usurbilgo Judo Elkarteko zortzi kirolari irailaren 30etik urriaren 4a bitartean maltan jokatu den



Munduko Senior txapelketan parte hartzeko aukeratuak izan dira. Gizonezkoetan **Ibai Peña, Xabier Urkizu, Mikel Ponga eta Iker Lizarribar** aukeratu dituzte. Emakumezkoetan berriz, **Aiora Arrozpide, Vanesa Guevara, Erika Guevara eta**

**M<sup>re</sup> Jose Sardon** joango dira Malta aldera.

Usurbilgo Judo Elkarteak usurbildar guztiei jakinarazi nahi die judon matrikulatzeko epeak irekita daudela. Oiaro kiroldegian eman ahal izango da izena.

## XXVII. Pelota txapelketaren bukaera

**A**zken hiru hilabetetan Pelota protagonista izan da herrian. Ostegun, ostiral eta larunbatetan pelota partidua ikusi ahal izan dira frontoian, eta urriaren 1 eta 2an eta urriaren 8an gaueko 22.00etatik aurrera jokatu diren finalerdi eta finalekin emango zaio bukaera txapelketa honi.

Finalerdiak erabakita daude ja. Urriaren 1ean jubencil mailan Sorarrain (Alkiza)-Zapiainek (Azkoitia) Zaldibiako Mendizabal-Gurrutxaga bikotearen aurka jokatu dute.

Haundietan berriz, Lekunberriko Azpiroz-Iriarte eta arantza eta Lasarteko Agesta-Eloa bikotea izango dira aurrez aurre.

Hurrengo egunean jokatu dira beste finalerdiak. Jubeniletan Irazoki-Alzuguren (Bera) eta Erroizenea-Argotek (Añorga) jokatu dute. Haundietan Martinez (Lizarra)-



Mitxelena (Lesaka) Enrike Huizi usurbildarra eta Zilbeti Olaguetarra izango dituzte aurkari.



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

**Xabier Carbayeda eta Goyo Martin**



## JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67



## Joxe Luis Unanue: "Atalluko liskarrak sortu dit buruhauste haundienera"

**U**rnietarra da Joxe Luis. 1991ko abenduaren 23an hartu zuen Usurbilgo udaleko idazkari postuaren jabetza, baina 1992ko urtarrilean hasi zen lanean. Aurretik Urnietako udalean egon zen 11 urte eta erdiz eta Bergaran ondoren beste bi urte eta erdiz. Orain Usurbil utzi eta Tolosarako bidea hartu. Guk berarekin egon nahi izan dugu Tolosako udalera joan baino lehen.

**Inor ezagutzen ez zenuen udal batean lanean hastea erraza izan al zen?**


Ni etorri nintzenera gauzak egunean zeuden, eta udal guztietako prozedurak berdinak izaten direnez ez zen zaila izan hemengo martxa hartzea. Arazorik haundienera jendea ezagutzea, jendearekin harremanetan jartzea, politikoa ezagutzea... izan zen.

**Udala haundia edo txikia izan desberdintasunik badago idazkariaren eginbeharretan?**

Herriaren tamainuaren arabera eginbeharra desberdina da. Gero eta udal haundiagoa izan bulego batean sartuta egoten zara eta jendearekin duzun harremana txikiagoa da. Udala txikia edo erdi mailakoa denean, Usurbilgoa bezalaxe, jendearekiko harremana haundiagoa izaten da.

**Zer lan egiten du ba idazkariak udalean?**

Denetik egin behar izaten da, baina gehienbat aholkulari lana egiten du idazkariak, bai politikoei eta bai jendearekiko. Jendea arazoei etortzen denean gauza horietaz aholku juridikoa eman ohi du idazkariak. Horfik aurrera udalak hartzen dituen erabakiez



fedea ematea izan da nire idazkari lana.

**Hemen egon zaren zortzi urtetan arazo asko konpondu behar izan dituzu?**

Arazoak izan dira eta nahiko konfliktiboak ere bai. Azken urte hauetan hirigintza arloan gauza asko egin dira. Ni etorri nintzenera arau subsidiarioak onartu berriak ziren eta horiek martxan jartzeko geldiune bat izan zen urte batzuetan. 1995etik hona ordea, mugimendua haundia izan da. Arau subsidiarioen 15-16 aldaketa izan dira, Eroski ere hor dago, Atalluko liskarra nolabait zuzendu...

**Zer izan da buruhauste gehien sortu dizuna?**

Atallu. Atalluko industria aldearena gogorra izan da. Aurretik arazo haundiak zeuden hor, lurak erregistroan ondo identifikatu gabe zeuden. Oraindik bukatu gabe daukagu gainera jardura horri dagokion expedientea. Eguzkitzako bidearen arazoa gehienbat desatsegina izan da. Liskar pertsonala zegoen, udaltzainekin, herriko jendearekin... eta azkenean tribunaletara joan behar izan zen.

Garai batean alkateari prebarririkazioa leporatu ziotenean ere ezinegon bat sortu zen. Zerbait gaizki egin genuen, baina azkenean dena ondo atera zen.

**Asko aldatu da udala zu hasi zinenetik hona?**

Administrazio aldetik behintzat gehiegi ez dela aldatu iruditzen zait. Momentu honetan zerbitzu hobekak daude, teknikoak badaude, kontuhartzailerak ere bai, eta udala euskalduna da. Ni etorri nintzenera udala idazkari gabe zegoenez, kanpoko abokatu batek egiten zuen aholkularitza lana. Orain berriz, joaten naizenerako ordezkoa hemen izango da.

**Begoña Garmendia zure ordezkari zer aholku emango zenioke?**

Zaila da aholkuak ematea. Bakoitzak ikusi behar du zein egoeratan hartzen duen eta nola jo behar duen aurrerantz. Agian zuzen samar, gogor samar hasi beharko luke gaiekin, eta pertsonalki jendearekin gehiegi inplikatu gabe. Jende hona dago eta hauen kolaborazioa bereganatzea garrantzitsutzat jotzen dut nik.



## Hika antzerki taldearen "arrautza delikatuak" antzezlanaren Udaregin

**E**z da herrian ematen duten lehen ikuskizuna. Lehen ere behin baino gehiagotan ikusi izan ditugu Hika antzerki taldearen antzezlanak. Izan ere, Usurbilekin harreman estua dute eta Aitzaga Elkartearen udalaren laguntzaz "Arrautza delikatuak" beren azken antzezlanaren aurkeztuko dute urriaren 1ean Udaregi ikastolan gaueko 22.00etatik aurrera.

Mikel Laskurain eta Teresa Andonegi antzerkilari ezagunak dira ikuskizun honetako protagonistak. Euskal Telebistako telesail garrantzitsuetan ikusi ahal izan ditugu askotan, baina oraingo honetan Usurbila gerturatuko dira **Agurtzane Intxaurragak** idatzi eta **Mireia Gabilondok** zuzentzen duen antzezlanaren eskaini asmoz.

Iturri Kulturgintza Zerbitzuak euskararen aldeko ikuskizun bat egiteko eskatu eta "Arrautza delikatuak" antzezlanaren sortu zuten. Tabernetarako pentsatuta dago ikuskizun hau, baina bitarteko gehiagorekin areto haundiagoetan ere eskaini dituzte beren emanaldiak. **Mikel Laskurainen esanetan** hilabeteko entsaiuen ondoren urte hasieran kaleratu zuten lehen aldiz antzezlan hau. "Orduetik hona 30 ikuskizun inguru eman ditugu. Korrikaren ekitaldietan eta euskararen aldeko antzeko jailetan aritu gara gehien bat. Udaren geldirik egon gara, baina orain berriz ere herri desberdinetara goaz."

"Arrautza delikatuak" antzezlanaren umoretsua da. Komedia klabearen dago montatuta, nahiz eta gauza batzuk azpian kutsu dramatikoak izan. "Jendeak ez du espero. Nahiz



eta buruari mila buelta eman euskararen aldeko ikuskizuna izan da ezin da honelako antzezlanaren espero". Hasiera batean 20 urtetik gorakoentzat pentsatuta bazegoen ere, adin guztietako jendearekin funtzionatzen duela ikusi dute. "Ondarrun jubilatuetan antzeztu genuen eta oso ondo pasatu zuten, eta handik aste batera Gasteizko gaztetxean izan ginen, eta hemen ere harrera ona izan zuen". Umeak ere gustota egoten omen dira. "Nahiz eta antzezlanaren honen

esanahia ulertu ez, formal egoten dira, eta horrek zerbait esan nahi du".


Izan ere euskara da gaia, baina Mikelek ez du pista haundirik eman nahi. "Metafora bat erabiliaz beste elementu batekin konparatzen da euskara, baina ezin da askoz gehiago aurreratu. Hasieran sorpresa bat daukala esan dezaket, baina gehiago ez". Horregatik antzezlanaren nondik norakoak ematerakoan zera esan zigun: "euskararen aldeko antzerkia da, bi antzezle dira eta 20 diapositiba inguru aurkeztu ditugu. Ez da komeni gehiago kontatzea". Hori bai, antzerkia motza izango da, 50 minutu ingurukoa eta Mikelek antzerkia aspergarrria dela esaten duten horiek erakarri nahi ditu: "gure antzezlanean jendea ez da aspertuko".

**Hasiera batean  
20 urtetik  
gorakoentzat pentsatuta bazegoen ere, adin guztietako jendearekin funtzionatzen du**

Josu Aranberri



Joseba Berriozabal



- Ikastolako irakaslea
- Uruguayan jaioa
- Aitzaga Kultur Taldeko kidea

## Kale aurpegiari begira

Uda honetan hortik zehar, Euskal herritik kanpo, ibiltzeko aukera izan dugu, Italiako Alpetan eta bertako herrixketan hain zuzen.

Kanpoan zaudenean normalean arreta jartzen ez dituzun gauzatara, lekutara joaten zaizu, eta ohikoak ez dituzun burutazioak egiten dituzu. Oraingoan ere hala gertatu zait

Bazterrak, etxeak, kaleak, herrien itxura ikusi eta gure inguruak etortzen zitzaizkidan burura. Hango etxea, kale estu hori, leiho haren buelta, horko iturri zaharra; eta beste hainbeste mendi txokotan. Bazirudien leloa ezer zaharrik ez hondatzea zela.

Harrigarria da jendeak zein harrotasunez gordetzen duen gurasoengandik jasotako ondarea. Herriak itxura zaharreko etxez eta txoko goxoz beterik aurkitzen dituzu, nahiz barrutik zein baino modernoagoa izan seguraski. Baina kanpoko -kaleko- "paisaia" izorratu gabe, paisaia hori herri osaren ondasuna eta nortasuna baita. Nire ustez, hala izan beharko luke behintzat.

Gurean, berriz, utzikeria nagusitu zen aspaldian eta oraindik buelta eman ezinik gabiltza. Errotuegi daukagu utzikeria horren arrastoa. Jaso dugun altxorra kupidarik gabe desegiten dugu. Egiten dugun berria arrotza da, formaz, gustoz,

materialez, desnaturalizatua. Hemendik 600 kilometrora ikusita dauzkat Atxega-aldekoak bezalako etxeak, berdin berdinak. Eta Agerialdeko edifizioaren bizkia 1.000 kilometrora. Arkitekto aluok!, inguruko baserriei edo erretratu zaharrei begiratu besterik ez zerbait ikasteko.

Jose Bergaminek idatzi zuen pertsona bati tontokeriak egitea toleratu egin dakiokela, esatea ere bai, baina erakitzea inola ere ez. Tamalez, gure kale eta bazterretan lerdokeria gehiegi eraiki dira eta jaso dugun "heziketa" halakoa izan da. Dena den, lanbide horretan aritzeko asmotan dabilzan batzuk ezagutzen ditut eta esperantza badut horiengan.

Edonola ere, pentsatzen dut soluzioa ez dela etorriko "profesionalen" eskutik bakarrik. Herritarrok, azken finean gure etxe barruan erabakiak hartzen ditugunok, jabetu beharko genuke jaso dugun ondarearen garrantziaz, berau zaintzea eta gordetzea ohitura bilakatu arte, kultura bihurtu arte, alegia.

Egunotan gure herria, Euskal Herria, antolatze bide eta ilusio berriak piztu direla, besteak beste gure paisaia urbanoa eta ondarearen jectioaz pentsatzen jartzea ez legoke batere gaizki. Urrutira joatean eta urrititik datozenen aurrean harro egoteko arrazoia izan dezagun.

**Tamalez, gure kale eta bazterretan lerdokeria gehiegi eraiki dira eta jaso dugun "heziketa" halakoa izan da.**



## Bertsoak

**Gaur egun lehortea eta euri eskasia denon hizpide da. Hau dela medio, bertotan gai honi buruz jardun zen Aginagako San Praxkutan 1988ko urriaren 7an Iñaki Murua. Joxe Miel Arrietak ipiñi zion gaia bakarka.**

Aurtengo udaran etorkizuna  
batzuentzako akabo,  
eguzki jaunak belardieri  
jo dielako hordago,  
baserritarra lehenaz gainera,  
ia lurra joan dago,  
ia euria egiten duen  
arruinau baino lehenago.

Negar-malkoa irtenez dago  
hain gizon adoretuak,  
izanez ere joanak dira  
lehenako egun ahaltsuak;  
zer egin digu udara hontan  
gure eguzki maisuak?  
estimazio izan behar dik  
Nafarroako pentsuak.

Uda ta negu lana ta lana  
argitik argira ari,  
hala ta guztiz ondasun asko  
ez zaie inori nabari;  
aurten lehorrak dana jo digu  
falta ur eta janari,  
a ze laguntza etorri zaion  
leheno gaizki zegonari

**Egilea: Iñaki Murua**

## Lehiaketa



**Zer izen du  
argazkian  
dagoen baserri  
honek?**

Asmatzaileen artean  
Antxeta tabernan bi  
pertsontzako afaria  
zozketatuko dugu.

73.aleko lehiaketaren erantzunik jaso ez dugunez ez dago irabazlerik

## **TXIMINIA ALTZARIAK**

**Osinalde industrialdea**

(Aizpurua autobusen aldamenean)

**Tel.: 943 37 09 66**

BISITA EZAZU

ALTZARI ERAKUSKETA HANDI BAT  
USURBILEN BERTAN.

PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA  
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.

*ESKAINTZA BEREZIAK BETI!!*

## URRIAK 1 ostirala

- **Hika antzerki taldeak "Arrautza delikatua"** antzezlan eskainiko du Udarregi ikastolan gaueko 22.30etan hasita. Sarrera: 500 pezeta.
- **Usurbilgo XXVII. Pelota Txapelketaren finalerdiak** herriko frontoian gaueko 22.00etan hasita.

## URRIAK 2 larunbata

- San Praixku jaien barnean **IZOTZ** taldearekin dantzaldia gaueko 23.00etan. Atsedendian **JEXUXMAI ETA NOIZBEHINKA**
- **Usurbilgo XXVII. Pelota Txapelketaren finalerdiak** herriko frontoian gaueko 22.00etan hasita.

## URRIAK 3 igandea

- **Aginagako San Praixku jaien barnean** goizeko 9.00etan tiro platoa probintzia mailan  
11.30etan **pala eta eskuzko pelota finalak**  
Eguerdiko 13.00etan **XVII. toka txapelketa**  
Arratsaldeko 17.00etan **sokatira txapelketa (640 kilotan)**  
Gaueko 21.00etan bertsolariak zine aretoan:  
- Jon Maia  
- Maddalen Lujanbio  
- Andoni Egaña  
- Jexux Mari Irazu  
Gai-jartzailea: J.M. Izeta  
Ondoren **KRISTINA ETA AMAIA** trikitilariak

## URRIAK 4 astelehena

- San Praixku egunean goizeko 11.00etan **meza nagusia** bertsolariekin batera  
Ondoren **zaharren hamaietakoa** Aginaga sagardotegian. Bertan bertsolariak ere izango dira.  
Arratsaldeko 17.00etan euskal jokoak: lokotxak, korrika, zaku-lasterketa, txingak...

Ondoren sardina eta sagardo banaketa. Aurten hain famatuak diren Agiñako piperrak dastatzeko aukera paregabea

- **Euskal Herria Askatu! kontzentrazioa** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

## URRIAK 8 ostirala

- **Usurbilgo XXVII. Pelota Txapelketaren finalak** herriko frontoian gaueko 22.00etan hasita.
- Aginagan 9.00etan umeen jolasak  
Eguerdiko 14.00etan **umeentzako bazkaria**

Arratsaldeko 17.00etan **Takolo, Pirri tx eta Porrotx**

Ondoren **txokolate banaketa**.

Gaueko 23.00etan **dantzaldia AKELARRE** taldearekin.

## URRIAK 9 larunbata

- Arratsaldeko 16.30etan **XIX. mus txapelketa**  
Aldi berean **tortila txapelketa**  
Gaueko 20.30etan **herri afaria**  
Gaueko 12.00etan dantzaldia **ETZAKIT** taldearekin.

Goizaldeko ordu batean: **herriko preso eta errefuxiatuei omenaldia**

Ondoren **ETZAKIT** taldearekin amaiera emango zaie aurtengo jaiei

## OHARRAK

- ✓ **Gidari bat behar da C-1 gida baimenarekin.** Baldintzak jakin nahi izanez gero deitu 649 422327 telefonora.
- ✓ **Etxekolanak egiten laguntzeko 2 orduz emakume euskaldun bat behar da.** Deitu 649-422327 telefonora

**Antxeta tabernan mus txapelketa hasiko da urriaren 2an. 16.00etan irekiko da izen emateko epea eta jokua 16.30etan hasiko da. Izen ematea bikoteko 1700 pezeta.**

### Sariak:

1<sup>o</sup> 2 arkume, bi ardo botella eta bi txanpain botella  
2<sup>o</sup> 2 kilo marisko, 2 ardo botella eta bi txanpain botella  
3<sup>o</sup> 6 kilo txuleta, 2 ardo botella eta bi txanpain botella  
4<sup>o</sup> 4 kilo txuleta, 2 ardo botella eta bi txanpain botella

### HIKA ANTZERKI TALDEAREN EMANALDIA

Urriaren 1ean, ostirala  
Gaueko 22.30etan  
Udarregi zaharrean

Aginagako zahar egoitzak YOGA ikastaroa antolatu du. Jubilatuz gain edozeinek parte hartu dezake ikastaro honetan. Deitu 943-366340 telefonora

**Aterpe eskulangintza taldeak bere tailerra urrian irekiko du Etxealdian. Bertan tailaketa, marrazkia eta pintura, zaharberitzeak eta eskulanak landu ahal izango dira. Izena eman nahi duenak 943-360744 telefonora deitu beharko du**

**55eko kintoen afaria azaroaren 6an izango da Txitxardin Beltza jatetxean. Izena emateko deitu 943 372646 (Josune Aranburu) edo 943 362226 (Ana Mari Arrillaga)**



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43



Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES  
SETABU, S.L.  
TAILERRAK

Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)


Tel.: 943 36 08 48

**XABIER EDARITEGIA**

Etor zaituz,  
eta dasta itzazu  
Goierriko produktuak

- × Idiazabal gazta
- × Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66



# ELDUAJEN

HIZKUNTZ ESKOLA



**Oso ongi pasatzen dugu ingelesa ikasten**

## MATRIKULAZIOA ZABALIK

Zubiaurrenea 6, behea  
Usurbi

E-mail: elduaien infomail.es  
Telf.:943 37 14 02



# 5.000 pezetaren truke, Egin zaitez bazkide!



**BAZKIDIE TXARTILUA**

5.000 PEZETA ARTE OGORAKO



Izena: \_\_\_\_\_  
1.Abizena: \_\_\_\_\_  
2.Abizena: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Herria: \_\_\_\_\_  
Tfnoa: \_\_\_\_\_  
Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

**447**  
bazkide ditu Noauak.  
Zu ere egin zaitez  
bazkide

# Usurbilgo OFIZIOAK

## zure eskura dituzu

### Aroztegiak

#### **BEREZIARTUA**

Egurrezko eta aluminioegurrezko  
lehioak

Izpira etxea

Aginaga

☎ 943 37 15 71- Faxa 36 01 59

#### **GONSABI S.L.**

Ugarte, 9

Kalezar

☎ 943 37 10 61

#### **IBARGOEN, JOSE RAMON**

Neurriko altzariak

Errotaberri kalea, 3- Osinalde

☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

#### **IKUTZA, JOSE MARI**

Ugarte,4

Kalezar

☎ eta Faxa 943 37 12 21

#### **OLASAGASTI, KETXU**

Gurutze kalea

Kaleberri

☎ 943 36 12 13

### Pinturak

#### **FERNANDO PINTURAK**

Bizkarre, 6

☎ 943 36 60 19 - 36 34 60

#### **BARCENILLA, RAMON**

☎ 629 46 09 66

#### **ION PINTURAK**

Orio

☎ 670 39 75 04 - 943 83 09 37

### Iturgintza

#### **LATAILLADE, IÑAKI**

Aristitxulo kalea, 8

Atxegalde

☎ 943 36 33 48 - 36 26 35

#### **ORBEGOZO, JAVIER**

Iturgintza, gasa eta berogailuak

Bizkarre kalea, 1- 1.esk

Kaleberri

☎ 943 37 29 37 - 36 59 26

#### **OSTAPE - ARANGUREN**

Ostape etxea

Kalezar

☎ 943 36 16 95 -

#### **PORTULARRUME, XEBERO**

Kale Nagusia, 10

Kaleberri

☎ 943 36 46 37

### Elektrizitatea

#### **IZAGIRRE, MIKEL**

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

☎ 943 37 02 74

#### **ARGILAN**

Instalakuntza elektrikoak

kontzeju zaharra, 13

☎ 943 37 02 74

### Igeltseritza

#### **ARANZAZISTROKI, JOSUE**

Igeltseritza eta pintura

Aldapatxo etxea

Kalezar

☎ 943 36 24 71 - 36 05 50

#### **ERRAZKIN C.B.**

Kale nagusia, 1

☎ 943 37 26 79

Santuenea

☎ 629 42 05 65

### Eskaiola

#### **NORIEGA, EUGENIO**

Erdiko kalea, 12

Atxegalde

☎ 943 36 56 65

#### **ELORZA, JOSE ANTONIO**

Galtzaragaina 2 - 2.B

☎ 943 37 34 70

Gida honetan azaldu nahi baduzu,  
deitu! **943 36 03 21** telefonora!